

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Alkate eta udalbatzako lehendakariaren dekretua. Arduraldi eskusiboak eta partzialak esleitzea

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoaren ildotik, hau erabaki zuen udalbatzak, gehiengoz, 2019ko ekainaren 28an egindako bilkuran:

“2019ko ekainaren 15etik aurrera, egun hori barne, arduraldia berekin eramango duten kargu korporatiboak zehaztea:

I. Arduraldi eskusiboarekin jardungo dute beren karguetan alkateak eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek, udal taldeen eledunek eta ordezkariak berezia duten zinegotziek.

Alkatearen ordainsaria 84.271,30 eurokoa izango da, eta horren arabera kalkulatu dira alkateordeak (73.104,48 euro), zinegotzi ordezkariak eta taldeek udalbatzan dituzten eledunenak (68.751,32 euro).

II. Ordezkaritza berezia duten zinegotzien ordainsariak —EUDEL-en irizpideen ildotik— alkatearen ordainsariaren ehuneko 75ean finkatzen dira.

III. Halaber, Eledunen Batzarrean adostutako irizpideei jarraiki, arduraldi eskusiboan bete ahal izango dituzte beren karguak —aurreko puntuan ezarritako baldintzetan— aldi berean honako ardura hauetako hiru edo gehiago dituzten udalbatzako kideek:

— Udalbatzaren batzorde iraunkorretakoren bateko edo Iradokizun edo Erreklamazio Batzorde Bereziko lehendakaria edo lehendakariordea.

— Kontratazio Mahaiko titularra edo ordezkoa.

— Udal erakunde autonomo bateko zuzendaritza-kontseiluko kidea.

— Bere udal taldearen eleduna, udalbatzaren batzorderen batean.

IV. Egoera horretan ez daudelako arduraldi eskusiborik ez duten udalbatzako kideek, ardura bat baino gehiago badute —udalbatzaren batzorderen bateko lehendakaria edo lehendakariordea, edo bere udal taldearen eleduna, udalbatzaren batzorderen batean—, baina hiru gairitu gabe, arduraldi partziala izan ahalko dute, eta aurreko atalean adierazitako ordainsariaren ehuneko 75era arte jaso.

Aurreko puntuetan adierazitako ordainsari-erregimenak berekin dakar Udalbatzaren Araudi Organikoaren 81.4 artikuluan aurreikusitako ordainsari-osagarriari uko egitea, 82. artikuluan adierazten den moduan.

V. Ez arduraldi eskusiborik, ez arduraldi partzialik ez duten korporazioko kideek dietak jasoko dituzte kide diren organo kolegiatuen bilkuretara joateagatik —Udalbatzaren Araudi Organikoan adierazten diren zenbatekoak—.”

Hortaz, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 75.5 artikulua haritik —alkateari aitortzen baitio beren zereginak arduraldi eskusiboan nahiz partzialean egingo dituzten kideak zehazteko eskumena—, eta udalbatzaren 2019ko ekainaren 28ko erabakiarekin bat etorriz, hau

Ebatzi dut

Lehena. Arduraldi eskusiboa.

Udalbatzako kide hauek egingo dituzte beren zereginak arduraldi eskusiboan:

1. Tokiko Gobernu Batzarreko kide diren aldetik, honako hauek:

- Gorka Urtaran Agirre jauna (EAJ-PNV).
- Ana Oregi Bastarrika andrea (EAJ-PNV).
- Iñaki Gurtubai Artetxe jauna (EAJ-PNV).
- Itziar Gonzalo de Zuazo andrea (EAJ-PNV).
- Livia Claudia López Gutiérrez andrea (EAJ-PNV).
- Maider Etxebarria García andrea (PSE-EE).
- Juan Felipe García Miravalles jauna (PSE-EE).
- María Ángeles Gutiérrez Ondarza andrea (PSE-EE).
- Borja Rodríguez Ramajo jauna (PSE-EE).
- Jon Armentia Fructuoso jauna (PSE-EE).

2. Udal talde politikoen bozeramaileak diren aldetik, honako hauek:

- Miren Larrion Ruiz de Gauna andrea (EH Bildu Gasteiz).
- Leticia Comerón Refojos andrea (PP).
- Óscar Fernández Martín (Elkarrekin Vitoria-Gasteiz).

3. Ordezkaritza bereziko zinegotziak diren aldetik, honako hauek:

- César Fernández de Landa Manzanedo jauna (EAJ-PNV).
- Miren Fernández de Landa Ruiz andrea (EAJ-PNV).
- Estíbaliz Canto Llorente andrea (PSE-EE).

4. Udalbatzaren 2019ko ekainaren 28ko erabakiaren III. puntuari zehaztutako arduretako hiru edo gehiago dituztelako, honako hauek:

- Félix González San Vicente jauna (EH Bildu Gasteiz).
- Ainhoa Domaica Goñi andrea (PP).

Bigarrena. Arduraldi partziala.

Udalbatzaren 2019ko ekainaren 28ko erabakiarekin IV. atalarekin bat etorriz, kide hauek egingo dituzte beren zereginak arduraldi partzialean:

- Rocío Vitero Pérez andrea (EH Bildu Gasteiz).
- Iratxe López de Aberasturi Saez de Vicuña andrea (EH Bildu Gasteiz).
- Alberto Porrás Conde jauna (EH Bildu Gasteiz).
- Amancay Villalba Eguiluz andrea (EH Bildu Gasteiz).
- Miguel Garnica Azofra jauna (PP).
- Alfredo Iturricha Yániz jauna (PP).
- Elisabeth Ochoa de Eribe Román andrea (PP).
- María Gema Zubiaurre Urquiri andrea (Elkarrekin Vitoria-Gasteiz).
- Garbiñe Ruíz Noriega andrea (Elkarrekin Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena. Ondorioak.

2019ko ekainaren 15etik izango ditu ondorioak dekretu honek, ALHAOn eta Udalaren iragar-ki-taulan arauz dagokion moduan argitaratuko bada ere.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 5ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGUIRRE